

FÁBRICA  
**PEDRO  
ORBEGOZO**  
FABRIKA

---

1952 - 1993

---



# EGILEAK

Teresa Toda Iglesia eta Agustín Ezponda Irizar.

## ESKERTZA

Bihotzez eskertu nahi dugu liburuxka hau osatzeko lagundu duten guztiei. Elkarrizketa luzeetan parte hartu duten langileak; zein argazkiak, dokumentuak, eta beste oroigarri edota oroimenak aportatu dizkigutengak. Eskerrak ere Selak enpresari, Pello Villalvari eta Hernaniko Udalari.

## AGRADECIMIENTOS

Agradecemos sinceramente la colaboración de quienes nos han ayudado a realizar este librillo: A los trabajadores y trabajadoras que participaron en largas entrevistas, así como a quienes han aportado fotos, documentos y otros recuerdos y memorias. Gracias también a la empresa Selak, a Pello Villalva y al Ayuntamiento de Hernani.

## ANTOLATZAILEA

Hernaniko San Joan Konpartsua (2024ko ekainaren 27an).



ORBEGOZOKO LANGILE TALDEA, HERNANI, 2024-05-21 (Argazkia: Carlos Corbella)



## PEDRO ORBEGOZO EIZAGIRRE

Zumarragatik heldu zen Hernanira, bere aitaren-enpresa utzi ondoren. Hiru bazkiderekin batera, Yaben tabernaren atzoko lokal txiki batean jarri zuen lantokia, udaletxearen atzealdean; bulegoak, berriz, gaurko Lizeaga kaleko lokal batean.



HEMEN KOKATU ZEN LEHENBIZIKO TAILERRA

## BAINA NOLAKOA ZEN PEDRO ORBEGOZO?

Hona fabrikako langileek zer kontatu diguten:

«Garai bateko estiloko» enpresari bat zen, altzairua «asko maite» zuena. Seme-alabarik ez zeukanez, enpresa omen zuen «seme nagusi»



# PEDRO ORBEGOZO

FABRIKA

Kontraesanak zituen bere jardunbidean. Langile batek hauxe esan digu: «*Lanean pare bat urte neramatzanean, bereganajo nuen, eta diru gehiago irabazi behar muela esan nion. Eta igo egin zidan soldata. Bestela, berriz, gutun-azal urdin bat ematen zuen, zenbatekoa azalean idatzita zuela. Bere iloba Pedritok ematen zuen gutun-azala»*

«*Betizua zen, iheskorra... Eta haren beldur izaten ziren langileak. Pabiloi-ren batean sartu orduko, tente jartzen ziren guztiak. Haren koinatuak, ar-duradun nagusia zenak, sartzen ikusten zuen orduko, beste aldera jotzen zuen»*, gogoan du beste batek.

«*Ijeleengana (ije=laminatezaile) joan, eta eskuetatik kendu egiten ziz-kien kurrikak. "Ez daukazu ideiarik! Etorri hona!", esaten zien. Gabardina erantzi ere egin gabe kurrikak hartu, eta hantxe hasten zen, erakusten...». «Zuhurra ere bazen. Bulegora iritsi orduko, itzali egiten zituen argiak, eta fabrikan barrena argi guztiak itzaltzen ibiltzen zen, argindarra dirua kostatzen zen-eta»*

Hainbat kirol-ekitaldi babestu zituen Hernanin. Traineru bat ere izan zuen, zeinari Pedro Orbegozok emaztearen izena jarri zion: Mañoli. Lau urtez eman zion babe-



**1971      1973      1974      1975      1977      1978**

<b>Trainerua Pisua Patroia</b>	<b>C.A.T. 360 Kg. P. Indo</b>	<b>Zikuñako-Ama 235 Kg. Gorrión</b>	<b>Mañoli 205 Kg. Gorrión</b>	<b>Mañoli 220 Kg. Gorrión</b>	<b>Mañoli 230 Kg. Lujamillio</b>	<b>Zikuñako-Ama 235 Kg. Gorrión</b>	
<b>SAIKAPEA</b>	<b>1 Orio</b>	<b>45,48</b>	<b>Lasarte</b>	<b>41,41</b>	<b>Orio</b>	<b>45,09</b>	
	<b>2 Lasarte</b>	<b>46,25</b>	<b>Orio</b>	<b>42,05</b>	<b>Castro</b>	<b>43,46</b>	
	<b>3 S. Pedro</b>	<b>47,21</b>	<b>Astillero</b>	<b>42,16</b>	<b>Lasarte</b>	<b>43,55</b>	
	<b>4 Donostia</b>	<b>47,26</b>	<b>Hondarribi</b>	<b>42,27</b>	<b>Goxtape</b>	<b>43,57</b>	
	<b>5 Arraun</b>	<b>48,15</b>	<b>Gelaria</b>	<b>42,48</b>	<b>Donosti</b>	<b>44,15</b>	
	<b>6 Hondarribi</b>	<b>49,00</b>	<b>Beraun</b>	<b>43,30</b>	<b>Hernani</b>	<b>44,45</b>	
	<b>7 Hernani</b>	<b>50,43</b>	<b>Hernani</b>	<b>43,31</b>	<b>S. Juan</b>	<b>45,31</b>	
	<b>8 Zuberoa</b>	<b>53,11</b>	<b>Kaiku</b>	<b>44,31</b>	<b>Kaiku</b>	<b>45,55</b>	
			<b>Orio</b>	<b>45,09</b>	<b>Santurizi</b>	<b>41,52</b>	
			<b>Castro</b>	<b>43,46</b>	<b>Lasarte</b>	<b>41,59</b>	
			<b>Lasarte</b>	<b>43,55</b>	<b>Orio</b>	<b>42,13</b>	
			<b>Goxtape</b>	<b>43,57</b>	<b>Kaiku</b>	<b>42,14</b>	
			<b>Donosti</b>	<b>44,15</b>	<b>S. Juan</b>	<b>42,29</b>	
			<b>Hernani</b>	<b>44,45</b>	<b>Castro</b>	<b>42,51</b>	
			<b>S. Juan</b>	<b>45,31</b>	<b>Hernani</b>	<b>42,55</b>	
			<b>Kaiku</b>	<b>45,55</b>	<b>Donosti</b>	<b>43,33</b>	
						<b>Kaiku</b>	<b>41,28</b>
						<b>S. Juan</b>	<b>41,45</b>
						<b>Lasarte</b>	<b>42,03</b>
						<b>Orio</b>	<b>42,10</b>
						<b>Astillero</b>	<b>42,19</b>
						<b>Hondarribi</b>	<b>42,25</b>
						<b>Castro</b>	<b>43,06</b>



sa traineruari 1974a izan zuen urterik onena, Kontxako ohorezko txandan sartzea lortu baitzuen. Gazteen txirrindularitzari ere lagundu zion, eta pilota-txapelketak ere babestu zituen Tilosetako frontoian.



## INSTALAZIOEN HISTORIAREN KRONOLOGIA

1952ko otsailaren 20an, Pedro Orbegozok Aceros y Fundiciones del Norte, Pedro Orbegozo y Cia empresa sortu zuen, Alegría eta Etxabe bazkideekin batera.

Hasiera batean nabe bat eraiki zuten, eta fundizioa kokatu zuten bertan (gaur egun Ibaiondo poligonoa dena). Beste nabe batean, mantentze-tailerrak ipini zituzten, eta gerora hirugarren nabe bat eraiki zuten, ijezketa-trenetarako.




# PEDRO ORBEGOZO

FABRIKA

PROYECTO

*de talleres para D. Pedro Orbegozo Etxeguiarre  
EN HERNANI*



1955ean sozietate anonimo bihurtu zen enpresa, 20 milioi pezetako (120.000 euro inguruko) kapital sozialarekin. Pedro Orbegozok oro har kontaktu onak izan zituen Administrazio frankistarekin inbertsioak egiteko. Alemaniako Stahlwerke Sudweatfalen AGenpresarekin kontratu bat sinatu zuen, altzairu finak ekoizteko aholkularitza teknikoa jasotzeko. Aurrerago, langile batzuk Alemaniara joan ziren, ijezketa-prozesua ikastera.

1958an, krisi gogor batek astindu zuen enpresa. Fakturak ordaintzen ez zituenetan, Iberdrolak moztu egin zion argindarraren hornidura, eta fabrikak eten egin behar izan zuen ekoizpena. Manifestazio bat egin zen, Zikuñagako zentraleraino. Gobernu Zibilarekin gestio batzuk egin ondoren, normaltasunera itzuli zen egoera.

1960an bi pabiloi berri eraiki zituzten, ijezketa-trenak kokatzeko (520 eta 450ekoak) eta altzairu berezia ekoitzi ahal izateko.



1964an ekintza itundu bat sinatu zen Administrazioarekin, ekoizpena zitzu bizian areagotzeko, bai fabrikazio-gametan, bai kopuruan.

1971ean, abuztuaren 13ko 2258/1971 Dekretuaren bidez, lurren erabilera publikoa eta premiazko okupazioa deklaratu zen Aceros y Fundiciones del Norte, Pedro Orbegozo y Cia. SAenpresaren alde, ijezketa, tratamendu termikoetara eta kalibratziora zuzendutako instalazioak zabaltzeko (BOE, 229. zk, 1971ko irailaren 24koa. Industria Ministerioa).

1972an, bigarren pabiloi bat eraiki zuten, txatarra biltzeko.

1974an, bigarren ekintza itundua sinatu zuen, Karabelen etxeak eraikitzen.

1975ean, bi pabiloi berri, Blooming trena eta Pitt birberotze-labeak. Horrela, nabarmen handitu zen ekoizpena.

1976an, bi pabiloi berri eraiki zituzten, kalitate-kontroleko makineriarako eta bulegoetarako, baita jangela, aldagela, argindar-tailerra eta laborategi metalografikoa ere.

Ekoizpen-prozesuak (txatarraren fundizioak eta abar) ikaragarritzko zarata sortzen zuen, eta kea ere bai, hala fabrikako instalazioetan nola herrian bertan. Kearen arazoa nolabait konpondu nahian, 1980an ke-araztegi bat jarri zuten.

1982an, Sociedad Aceriales sortu zen, altzairu bereziak berregituratzeko sektorako.

1993ko abuztuan, fabrikak behin betiko itxi zituen ateak, 40 urte baino gehiagoko lanaren ondoren.

## LANGILEAK ETA EKOIZPENA

Lehenengo urteetan, Hernani ingurueta soldatarik handienak ordaintzen zituen Orbegozok. *«Denek joan nahi zuten hara»*

Eskola Profesionaleko –gaur egun, Karmelo Labaka ikastetxea dago bertan– ikasleak eskatzen zituzten lanerako: laugarren maila amaitzen zutenean, lana



# PEDRO ORBEGOZO

FABRIKA

eskaintzen zieten, eta langile dezente etorri ziren handik.

Aurreneko langileak Hernanikoak eta inguruko herrietakoak ziren batez ere. Gerora, Espainiako beste lurralte batzuetako jendea ere sartu zen. Kalkulu batzuen arabera, 80ko hamarkadan, langileen % 60 hernaniarrak ziren. Gainerakoak Urnieta, Andoain, Lasarte, Donostia eta Errenteriakoak ziren batik bat. Hainbat urtez, autobus bat joaten zen Donostiatik enpresara, «*langileen autobusa. Geltokiz geltoki jendea bildu, eta gainezka etortzen zen*»



TXATARRA KARGATZEN



Fundizioa eta ijezketa ez ziren zeregin samurak. Lehenengo langileetako batek, jada 91 urte dituenak, honela dio: «*Ume izan gabe zahartu naiz*»

1958an hasi zen lanean, eta gogoan du oinetakoak eta arropa etxetik eramatzen zituztela, eta lana gogorra zela oso, sekulako zamak altxatu eta gori-gori zeuden piezak manipulatu behar izaten zituztelako, 800-900 gradutan, kurrika luze soil batzuk erabiliz.

Lehen-lehenik automobilgintzarako bolante eta ardatzak hasi ziren egiten. Txatarraz, kareharri zeta eta ikatzez egindako burdin urtua erabiltzen zuten horretarako. Kubilotean isuri, eta zurezko moldeen bidez hareaz egindako pieza batzuen



LANGILEAK TOTXOAK MUGITZEN



# PEDRO ORBEGOZO

FABRIKA

gainean zabaltzen zuten. Eskafandra eraman behar izaten zuten, silikosi-gaitza hartzeko arriskuaren aurrean babesteko.

Geroago, fundizio- eta altzairutegi-lanetan hasi zen enpresa. Prozesua ezberdina zen, txatarra labe elektrikoetan urtzen baitzen lingoteak egiteko. Lingote edo totxo horiek-250-400 kilo hartzera iristen ziren zenbaitetan- ijezketa-sailera igarotzen ziren, eta fusio-prozesuak hiru ordu inguru irauten zuen. Altzairu urtua lingote bihurtzen zen gero. Horri isurketa deitzen zaio, eta lanik gogor eta arriskutsuenetako bat zen, handia baitzen istripu bat izateko probabilitatea.

Lingoteak ijeztu egiten ziren ijezketa-trenetan. Zilindro astun batzuen artean hainbat aldiz presionatu ondoren, tamaina edo bolumen txikiagoko pieza luzexka bihurtzen ziren, eta gero, helmugako fabrika edo industrietan, beste



LABEA BETETA




LINGOTEAK "TRENEN" SARTZEN

produktutan eraldatzen ziren. Orbegozon hainbat tren egon ziren, eta haien artean 520a zen nagusia.

Beste aurrerapen garrantzitsu batzuk finketa eta isurketa jarraitua izan ziren: egundoko iraultza ekarri zuten altzairu bereziaren fabrikaziora. Sekulako berrikuntza izan zen hori, eta punta-puntakoa bihurtu zen enpresa. Orbegozoren produktuek ospe handia lortu zuten, kalitate bikainekoak baitziren. Enpresak besteak beste Vicinay, Hispano Alemana eta SKF zituen Europan bezero.

60ko eta 70eko hamarkadetan, Orbegozoren ekoizpena handitzen joan zen. Eta, era berean, langileak klase-kontzientzia aldarrikatzailea izaten hasi ziren. Sindikatu Bertzilerako ordezkariek aukeratu zituzten, hori baitzen frankismoaren garaian baimenduta zegoen antolakunde «*sindikal*» bakarra. Lanaren arloko aldarrikapenerenkin konprometitutako pertsonak ziren eta gauza asko lortu zituz-



ten. Enpresaren aldetik, «*Zuzendaritza Teknikoa izan ezik, gainerako nagusi guztiak frankista aktiboak ziren*», dio haietako batek 1981ean, lehenengo hau-teskunde sindikal askeak egin zituzten.

## EMAKUMEAK? OSO GUTXI

Oso emakume gutxi aritu ziren Orbegozon lanean. Tailerretan, bakar bat ere ez. «*Zeharo debekatuta zegoen emakumeak fabrikan sartzea*»

Emakumeak administrazioan aritu ziren. Bat laborategiko teknikaria izan zen, eta Enpresa Batzordean egon zen.

Errealitate hartaz jabetzeko, nabarmenzeko modukoa da birmoldaketa–proze- suan gertatutakoa: «*Gizonei aukera eman zitzaien lanera Forjas Alavesas*





*enpresara joateko, eta gutxi batzuei Basaurira, Santanderrera edota Reinosara. Baino gizonei bakarrik eskaini zitzaien aukera hori. Emakumeei ez»*

## **PEDRO ORBEGOZO ENPRESAKO LANGILEEK KONTATUTAKO BIZIPENEN LABURPENA**

### **EKINTZA ITUNDUAK**


Ekintza itunduak elementu garrantzitsua izan ziren Orbegozoren historian, lanaren arloa gainditu eta dimentsio sozialean ere eragiten zuelako. Horri esker eraiki ziren, adibidez, Karabeleko etxeak. Bi ekintza itundi egon ziren.

*«Klase-borrokan eginkizun normala eskubideak aldarrikatzea zen. Eta, batez ere, enpresa langileen aurrean hartutako konpromisoak betetzera behartzea»*

Negozioak ordezkari sindikalen eta enpresaren artean egiten ziren arren, gero *«gorago hartzen ziren erabakiak»*. *«Onura sozialak lortzera bideratzen ziren batez ere; hori zen garrantzitsuena. Langileentzat onurak lortzea: soldatak, arropak, etxeak... Gauza asko zeuden»* gogoratzen du negoziazio haietan parte hartutako langile batek.

Lehenengo ekintza itundua, 67ko greba egin eta gutxira, neurri handi batean ez zen bete. Pedro Orbegozo kontaktu bila ibili zen Administrazioan, Estatuko Garapen Plan batean. Itzuli beharrik gabeko dirulaguntza dezente lortu zituen, baina *«goiko lauzpabosten artean kudeatu zuten»*, langileak bazterrean utzita. Eranskinen artean, bazen bat hobekuntza sozialei bideratua. Hainbat etxebizitzaz egiteko konpromisoa hartu zuten, baina ez zituzten eraiki. *«Lehenengoa enpresaren onurarako izan zen, ez besterik; ekoizpena handitzeko eta hobetzeko, azken batean»*, diote langileek. *«Zergatik? Ez zitzaielako jakinarazi lotura eta epaimahai sindikalei. Lehenengo ekintza itundua enpresak eta Gobernuak sinatu zuten, Industria Ministerioak»*

Bigarrenean, 70eko hamarkadaren hasieran, enpresak 850 milioi pezeta inguru (5 milioi euro baino gehiago) jaso zituen, eta etxebizitzak eraikitzeko konpromiso soziala beteko zuela agindu zuen. Negoziazio harten enpresa-batzordeak hartu zuen parte. Hala ere, batzordeko kideek Madrilera joan behar izan zuten, eta Industria Ministerioan *«sartu»*, dokumentazioa lortu ahal izateko. Gainera,



**PEDRO  
ORBEGOZO**  
FABRIKA

«greba handi bat egin behar izan zen, enpresa 90 etxebizitza inguru eraikitzera behartzeko. Haietatik 72 langileen artean zozkatu ziren. Enpresak 18 hartu zituen bere konpromisoetarako»

Ekintza itundu horri esker, jangela eraiki zuten eta instalazioetan hobekuntzak ere egin zituzten.

Batzuek uste dute Hernanin egon zen Ekonomatu kolektiboak zerikusia zuela Orbegozoko ekintza itunduarekin, baina ez. «*Ekonomatua herriko enpresa garrantzitsuenen ekimen bat izan zen. Supermerkatu bat sortu zuten, enpresa horietako langileek salgaiak prezio merkeagoan eskuratu ahal izateko. Ispizua kalean egon zen, Tilosetaren ondoan*»

## LAN BALDINTZAK ETA LAN OSASUNA

Langile hauek garai haietako lan-baldintzez mintzo direnean, agerian gelditzen



LANGILEAK BABES PANTAILAKIN LABEA ELIKATZEN



da segurtasun-neurri gutxi zeudela tailerretan. Zeuden apurrak, gainera, kas-karrak ziren oso, behartuta hartutakoak. Ez zegoen higieneari eta laneko segur-tasunari buruzko araurik ere.

«*Egia esan, lanean nola aritzen ginen kontuan hartuta, nik ez dakit istripu gehiago nola ez ziren gertatzen...*» gogoratzen du ijele batek. «*Batzuk erre egiten ziren, edo eskua galtzen zuten... Arriskutsuak ziren garabiaren gurpi-lak, korrontea, ijezketa-trena, uralita, eta abar»*


Istripuren bat gertatu eta inor hil edo larriki zauritz gero, arau orokor gisa, ete-naldi bat egiten zuten. Eta salatu. «*Ez orain bezala, baina zerbait egiten zen*» esan digute.

70eko hamarkadan, kaskoak ekartzen hasi ziren. «*Bakoitzak berea eduki beha-rrean, elkarri uzteko esaten ziguten*»

Ondo gogoratzen dute inork ez zuela kaskoa eraman nahi izaten. Gauzak ho-



HAMAIKETAKOA EGITEN 60. HAMARKADAN



rrela, enpresak begirale bat ipini behar izan zuen. Sailez sail ibiltzen zen fabrikan, eta «*inor kaskorik gabe harrapatuz gero, 50 pezetako isuna jartzen zion. Zenbat iseka eta bira o entzun beharko ote zituen begirale horrek!*» Kaskoak babestu egiten zuen, bai, baina «*labean, bero kiskalgarri harekin, latza zen oso. Jendeak kendu egiten zuen*»

«*Garai hartin, goizeko txandan ari ginela, arratsaldeko txandan norbait falta bazen, bertan gelditzeko esaten ziguten*» dio beste langile batek. «*Jangelako edo Juxto tabernako bazkaria ordaintzen ziguten, eta askari eder askoa ematen, ardo-botila eta guzti. Ardo-botila, bai! Eta lanera berriro, beste txanda batera*»

Iruzkin horrek lanean alkoholik edaten ote zen galdetzera garamatza. «*Alkohola barra-barra ikusten zen fabrikan. Eta ardoa bakarrik ez, e? Goizeko zazpietan lanean hasterako, zabalik egoten zen jangela, eta han kafe pattarduna zerbitzatzen zuten. Bain fabrikan baziren uxual- eta koñakbotilak ere. Alkohola, bai. Batzuk horrela aritzen ziren lanean*»

«*Lanetik 50 metrora, taberna bat zegoen, eta langile batek eskorga hartu eta botilez beteta ekartzen zuen, langileei eskatu ahala emateko. Horrela, egunero*»

Denborarekin, kaskoa eramatera ohitzen joan ziren bezala, desagertzen joan zen alkohola. «*Segurtasunaren gaia sartzen joan zenean, pixkanaka-pixkanaka baztertu egin zen alkohola. Beti bezala, bazen ezkutuan edaten zuenik, baina “legalki” inork ez. Ez zegoen onartuta. Segurtasunagatik. Arriskutsua da, izan ere. Askotan, arriskutsuagoa izaten da ingurukoentzat, edanda dagoenarentzat baino*»

Ahalegina eginez eta borroka sindikalari esker, segurtasun-neurriak eta abar ezartzen joan ziren, eta hobekuntzak lortu zituzten. Adibidez, norbait lan-istripu baten ondorioz % 55eko edo gehiagoko ezintasun osoarekin gelditzen bazen, bere egoerarekin bateragarria zen lanpostu bat ematen zioten.

## EUSKARA FABRIKAN

Esperientzia interesgarri baten bidez sartu zen euskara Orbegozon: gure hizkuntza lanaren esparruan normalizatzeko prozesu baten barruan, hain zuzen. 1978 eta 1982 artean garatu zen proiektua; azken urte horretan, izan ere, seko-

# PEDRO ORBEGOZO

FABRIKA



## POSA.ko ikastola


- INFORME CURSO 1978-79  
- 1978-79 KURTSOAREN TROSTERA

rearen eta enpresaren beraren krisiaren ondorioz, geldiarazi egin ziren ekimen berriak.

Gaiaren inguruan kezkatuta zeuden langile batzuek lantaldetan bat sortu zuten, euskara-teknikari bat kontratatzeko eta fabrikan euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko. Langileen Zuzendaritzak ezezkoa eman zuen hasieran, baina Enpresa Batzordeak aho batez onetsi zuen euskararen normalizazioari begira gutxieneko helburu batzuk defendatzea.

Teknikaria lanean hasi zenean, inuesta soziolinguistiko zabala bat egin zuten enpresan, eta 1.482 langileetatik 511k erantzun zuten. Oso lagin garrantzitsua zen hori. Hortik aurrera, euskara idatziaren presentzia nabarmen areagotu zen iragarki-oholetan eta enpresako barne-komunikazioetan, eta langileek oro har normaltasunez onartu zuten.

Pausorik garrantzitsuena POSA ikastola sortzea izan zen, euskara ikasi nahi zuen enpresako langileentzat euskara-eskolak antolatzeko. Lehenengo bi ikas-



turteek nahiko arrakasta handia izan zuten: 1979-80 ikasturtean 122 pertsona matrikulatu ziren, eta haietatik 81ek ikastaro osoa amaitu zuten. Orbegozoko langileek ematen zituzten eskolak, eta oso oroitzapen onak utzi zituzten. Laneko txandetara egokitzeko moduan programatzen zituzten eskolak.

Euskara Batzorde bat sortu zen, jarraipena egiteko eta Zuzendaritzari nahiz Enpresa Batzordeariegoeraren berri emateko. Batzorde horrek bere aurrekontua zeukan, material pedagogikoa eskuratu eta jarduera osagarriak antolatu ahal izateko. Garai hartan, antzeko dinamikak zeuzkaten beste enpresa batzuen ordezkariekin bilerak egiten zituzten, koordinatuta aritzeko eta esperientziak elkarri ezagutarazteko.

Nolanahi ere, enpresa krisi-prozesu orokorrean sartu eta sektore guztia birmoldatzen hasi zenean, eten egin zuen jarduera.

## BORROKA SINDIKALA

Borroka sindikalak egundoko garrantzia izan du hala Orbegozoren nola Hernaniren historian. Lotura estua dago bien artean. Hernaniko jendeak, oro har, bat egiten zuen Orbegozon laneko arazoen aurrean edo negoziazio kolektiboaren kariaz deitutako grebekin. Eta Orbegozoko langileek, era berean, parte hartzen zuten Hernanin eta Euskal Herrian gertakari politiko edo sozialei erantzunez antolatutako mobilizazio eta grebetan.

Historia hura jasotzeko, hala frankismoan nola askatasun sindikala zegoenean sindikalista gisa aritutako langile batzuen hitzak bildu ditugu hemen.

*«Gu metalaren hitzarmen probintzialaren gainetik geunden, baina, hitzarmen hori negoziatzen zen guzietan, greba egiten genuen sektorean. Beti. Zergatik? Ba gure inguruau tailer asko aritzen zirelako guri laguntzen, eta, zenbaitetan, haien ere gure laguntzabehar izaten zutelako. Kontzientzia-maila handia zegoen»*

*«Edonola ere, Orbegozo eredugarria zen Hernanin. Bistan da. Gauza guzietan. Ez bakarrik ekonomiaren edo lanaren arloan; halakoa zen politikaren eta greben esparruan ere. Zerbait larria gertatu orduko, lehen pausoa ematen zuten enpresen artean Orbegozo egoten zen beti. Gaineraoak atzettik joaten ziren. Herriaren motorra zen»*



## 1967KO GREBA

1967an egin zen lehenengo greba. Enpresak 350 langile zeuzkan orduan. Fran-kismo-garai betea zen: lanuzteak debekatuta zeuden eta errepresio frankistak jazarri egiten zuen langileen mugimendurik txikiena ere. Francoren erregimenak bere sindikatua zeukan: «*Sindikatu Bertikala*»

Oso sistema bitxia zen, ugazabak eta langileak sindikatu berean biltzen baitziren, ekoizpen-sektoreen arabera antolatuta. «*Batasuna, osotasuna eta hierarkia*» ziren haien sortze-printzipioak. Hainbat hamarkadatan, klase-kontzientzia zeukaten langileek laneko eskubideen alde baliatu zituzten sasisindikatu haiek.


«*Ikusi beharko litzateke ordezkaritza sindikala nola antolatu zen*» dio 60-70eko hamarkadetan aktiboki parte hartu zuen langileetako batek.

«*Eklosio sozialeko urteak izan ziren haien. Sindikatu bertikalak erakarri behar ziren. Bereizi egin behar dira sindikatu bertikalak eta oinarria*» Bazen beste alderdi garrantzitsu bat ere, aintzat hartuta garai hartan ez zela egiten udal-hauteskunde askerik: «*Ordezkaritza-lanpostuak bete egin behar ziren, gero udaletan tertzioak izendatzen zirelako: Tertzio Familiarrak, familietako aitak; Entitateen Tertzioa, Erregimenak jartzen zuena; eta Tertzio Sindikala, sindikatuena. Sindikatuen hauteskundeetan nolabaiteko konfiantzazko jendea ateratzea izaten zen gure asmoa, horrek Udalera iristeko aukerak ematen zituelako. Kezkak zituen jendea. Geroago, kezka gehiago zeuzkan jendearen bila joan ziren alderdi politikoak*»

Gehiago gogoratzan du langileak: «*Lehenengo hauteskunde haietan ni egon nintzen. Sindikatu bertikala, lotura sindikalak eta empresa-epaimahaiaiak antolatu ziren. Epaimahaikideok titularrak ginen, eta loturak titularrordeak, nolabait esatearren. Orbegozon konfiantza osoa geneukan elkarrengan. Bageneki bakoitza nolakoa zen. Bazen gizon bat atzerakoiazena, baina sindikatuko ate guztiak zabaltzen zizkigun, falangista izana zen-eta...*»

1967an, hori guztia gertatzen ari zenean, egoerak okerrera egin zuen Orbegozon.

«*Denak elkarren ezagun egin ginenean, Orbegozo soldatak jaisten hasi zen, edo, behintzat, ez igotzen. Jendeari bizitzeko iristen ez zitzaiolako egin zen lehenengo greba. Erosahalmena erruz murritzutzen; sekulako inflazioa zegoen. Soldatak igotzeko eta pizgarrien sistema berrikusteko eskatzen hasi*



12 Asteazkena,  
1992ko maiatzak 13

## EKONOMIA

Egunkaria

# Acenorreko langile bat zauriturik eta beste bat atxiloturik atzoko grebaldian

Sindikatuak eta Eusko Jaurlaritzak Novanor plana negoziatzen hasiko dira gaur

**S**indikatuak batasunik eza eta Larrondoko istiluak izan ziren atzo Acenorreko langileen greba eguneko ezauigarri nagusiak. Langile bat zauriturik eta beste bat atxiloturik izan ziren Bizkaiko herrian. Ertzaintzarekin izandako istiluen ondorioz, ELA, LAB, UGT eta CCOOeko ordezkariek eta Gasteizko Industria Saila Novanor planaren negoziazioari egingo diote gaur.

BILBO

Greba egunak erabateko eragin izan zuen Acenorreko Hernani, Laudio eta Larrondo dituen lantegietan. Basaurin % 70eko eragina izan zuen eta Gasteizen, berriaz, normaltasunez egi zuten lan langileek.

Larrondoko istiluak dagokienez, goizeko 8etan hasi ziren, langileek suzko barrakidekin errepidea moztu zutenean. Ertzaintzak barrakidea hauek kentzerakoan, langileek harri eta suziria jaurti zituzten. Ertzaintzak lanegi barraraino sartu eta langile bat eraman zuen Erandiko komisadegira, PAZ, ELA sindikatuko kidea. Beste langile bat, L.F.R. gomazko pilotakoa bat hartzuta, Gurutzetako ospitalera eraman behar izan zuten.

Hernani eta Laudion manifestazioak egin zituzten langileek herrietan. Basaurin konzentrazioak izan zirela eta barrakada bat jarri zuten trenbidean.



Hernaniko Acenorreko langileak Donostian manifestatu ziren.

ANDER GILLENEA

Gogoratu beharra dago ELA sindikatuak bertan behera utzi ziren herenengun atzoko greba zein gaurko mobilizazioa deialdia. Enpresaren jabe berria eta Eusko Jaurlaritzarekin negoziatzen gaur hasi behar dute eta negoziazioa hauek «lasaitasun giroan» egin nahi ditu ELAK.

Sindikatu horretatik atzo adierazi zutenetxez «ezinbestekoa da Eusko Jaurlaritzak dituen plantean ezagutzea edozein erabaki hantu aurretik». Ildo horretan, «egoera berriaren aurrean» atzoko eginga zuen Acenorreko greba deialdiandik atzera egin zuen sindikatuak.

**GAINONTZEKO  
NEGOZIAZIOAK  
GAUR**

sindikatuek, arrazoik ikusi mobilizazio hauek bertan behera utzeko, batez ere kontutan hartua. Gasteizko Industria Sailak egindako Novanor planaren eraginak Larrondo eta Forjan lanetegiak itxi, enpresa pribatizatu eta 3.000 langilek euren lanpostura gal ezaketeela.

LAB, UGT eta CCOOek ELAren jarrera gaizteten zuten bitartean, Jon Azua lehendakariordeak begi onez ikusi zuen sindikatu abertzale honen greba bertan behera utzi izana eta Ace-

norrentzako plan berriaren negoziazioaren aurrean jarrau zuena eritziz.

Jauralitzak gaur emango die Madrileko Gobernukaren lortutako akordioaren berri sindikatuei eta Novanor plangintza eztabaidatzeari ekingo diote, alde guziek. Gasteizko Gobernuk negoziazioa hauentzat «adostasuna lortzeko» nahiz azaldu du. Alzatirau berezien sektorearen etorkizuna ziurtatuko duen plana diseinatutako «Eusko Jaurlaritzako Industria Sailaren lana» dela eta honeketaurako «sindikatuekin negoziazio prozesua zabaldu» beharra azpimarratu du ELAK.

Sokoa enpresako mozkinek % 22ko gorakada izan zuten iaz

M. ESTEBAN / HENDAI

Hendaia industrian dagoen Sokoa S.A., bulegoetarako aulkien egile eta saltzaileak mozkina onak lortu zituen azken urteko balantzean, 3,9 milioi librako (73 milioi pezeta) emaitza garbiarekin edo % 22ko gorakadaren, 1990etik 1991era.

Ororokki joan zen urteko negozio kopurua 76,2 milioi librakoan izan zen, 1990. urteari alderatuta negozio kopurua gorakada txikia izan arren, azpimarratzeak mozkina oso handia izan zela.


Sokoa 85 langilekin eta enpresa certaia izanik soziatetan mahikorik garantsitu da Ipar Euskal Herriko. Hendaian hirugarren soziatetan da negozio kopurua kontutan hartuta. Lapurdi eta Gipuzkoan ere ekonomia ekintzak bultzatzen ditu, batez ere hamalurru soziatetan kapitalistak parte hartuz. Frantziako ere bulegoetako aulkien egileen artean laugarruen portu du Sokoa.

Datozen urteetarako, Sokoa bere mozkinek hobetzeko xedea du, batez ere produksioa handituz. Hemendik 1994. urtean arte produkzioak 135.000 aulkitiketan 200.000etara paseatu behar luke.

**Managing eta  
Trade azokak gaur  
hasiko dira Bilbon**

ginen. Enpresak ez zuen ezer egiten, eta latza zen egoera ekonomikoa. Garbi geneukan horrek ezin zuela horrela jarraitu; beraz, greba egitea erabaki genuen, gure ustez bidezkoa zena lortu ahal izateko»

Oso gogorra izan zen lanuztea. Langile guztiak egin zuten greba, nagusiek eta



guzti. Baino, bigarren astetik aurrera, enpresa erdi-mailako kargudunei presioa egiten hasi zen, lanera itzul zitezen, eta batzuek amore eman zuten. Beste batzuek aurrera jarraitu zuten grebarekin; esate baterako, enpresarako lanean aritzen zen kamioi-flota baten jabeak. Pedro Orbegozok berak hutsaldu zion kontratua gizon hari. «*Herriko jendeak bat egiten zuen Orbegozoko langileekin*» gogoratzen dute greban parte hartu zuten batzuek.

«*Elkartasun handia zegoen Hernanin. Hainbesterainokoa, non Antton Idigoras harakinak, adibidez, harategia Zinko Enean zuenak, esan baitzuen “Baten batek jateko haragirik behar badu, etor dadila nire harategira, eta esan diezadala ‘Aizu, begira, halakok bidali nau’, eta behar duen guztia emango diot”. Eta eman egiten zien, bai, dohainik. Sozietateek ere elkartasunez jokatu zuten. Erreklamazio batzuk aurkeztu zituzten, nahiz eta gobernadoreak itxi egin zituen hiru hilabetez. Denak itxi zituen»*


Grebaldian, zuzendaritzarekin harremanetan egon ziren. Enpresa elkartzera behartzeko, sindikatu bertikala aprobetxatu zuten langileek. Enpresak 30 gizon baino gehiago kaleratzeko asmoa zeukan.

Negoziazio haietan egondako langile batek gogoan du nola esaten zioten Pedro Orbegozori ezinezkoa zela hori, ezin zela inor kaleratu. Enpresak, orduan, beste zerrenda bat proposatu zuen, 15 kaleratzerekin. Hori ere ez zuten onartu langileen ordezkarien. Azkenean, bost kaleratu zituzten. Gaia bilkuran aztertu, eta lanera itzuli ziren. Kaleratutako bost gizon haien langile guztien babesia jaso zuten: «*elkartasun-kutxa*» bat ipini zuten, langile bakoitzak nahi zuen diru-kopurua sar zezan, eta bildutakoa bost kaleratuen artean banatu zuten gero.

Lanuztearen kariaz, langile batzuk atxilotu ere egin zituzten, greba egitea legez kanpokoa baitzen orduan. Sindikalista batzuk hainbat aldiriz atxilotu zituzten urte haietan, eta batzuk denboraldi labur batean Martutenen egon ziren espetxeratuta.

Greba amaitu eta gutxira, aldatu egin zuten gerentea. «*Ezertarako balio ez zuen gizon bat jarri zuten. Administrazioak berak aholkatu zion Pedrori gizon hori hartzeko, baina inolako fundamenturik gabeko gizona zen. Faxista hutsa, gainera»*

Francoren Guardiaren ordezkari militar bat jarri zuten langileen buru, Llanos abizeneko bat, «*langile liderren artean zegoen elkartasuna birrintzeko asmoarekin*» baina ez zuen halakorik lortu.



## 1972KO GREBA

1972an beste greba bat egon zen, prima edo pizgarri batzuen inguruan eza-dostasunak zeudelako. Aldeak zeuzkaten ekoizpena, lanuzte-denbora eta itxarote-denbora ulertzeko moduaren inguruan. Arazoak egon ziren itxarote-denborarekin eta lanuzte-denborarekin, ez baitzegoen adostasunik kontzeptu horien inguruan. Honela dio beste langile batek: «*Ijezketa-trena gelditu egiten zenean, zergatik gelditu zen begiratu behar zen, eta zergatiaren arabera itxarote-denbora edo lanuzte-denbora izatenzen. Bazegoen aldea, bata ala bestea izan, kobrau egiten zelako edo ez»*

Buruzagi sindikalaren artean ere ikuspegi-anitzasuna zegoen. Ijezketa lanuzte-deia egin zuten, eta greba egin zuten. «*Lehenengo astean, bat eginda geunden denok; bigarren astean ere bai; baina, hortik aurrera, batasun hori ahultzen joan zen*». Kasu hartan ere egon zen atxiloketarik, eta enpresak bi sindikalista kaleratu zituen.

Jarduera sindikal bizia egon zen Orbegozon. Lehenengo hauteskunde sindikal askeak 1981ean egin zituzten. Enpresak 1.580 langile inguru zeuzkan orduan. Langileen % 75 eta 80 artean sindikatuta zegoen; batez ere ELA, LAB, CC. OO., UGT eta ESK sindikatuetan. Bilkuretarako urtean batez beste 12 ordu ordaindu izatea lortu zuten. «*Guk gure hitzarmen propioa geneukan. Metalaren arloan Espainiako hitzarmenik aurreratuena zen, bai ekonomikoki eta bai sozialki. Urtero negoziatzen zen enpresaren eta langileen ordezkarien artean*»

Zaila da deialdi eta mobilizazio guzti-guztiak gogoratzea. «*Ekintza itundua, enpresa-hitzarmenak, Gipuzkoako metalaren hitzarmenak eta 1984an 380 lankideren berregituratze-espedientea zirela tarteko, bi hilabete eman genituen greban...*»

Eta hala jarraitu zuten. 1987an, berregituraketa-espedientearen aurkako beste greba bat egon zen, lanpostuen eta lan-eskubideen alde, eta udaletxearen itxi eta gose-greba ere egin zuten. 1990-1992 bitartean, ijezketa soilik aritu zen fabrika-ekoizten zuenaren kalitatea kontrolatzen-, eta hala jardun zuen 1993an itxi arte.

## IXTE-PROZESA

Oso fabrika espezializatua zen arren, eta bere sektorean oso lehiakorra, 80ko




hamarkadaren hasierako nazioarteko egoerak, Europar Batasunean altzairu-ekoizpena herrialdez herrialde banatzeari buruz hartutako erabakiek eta Espaniako Administrazioaren erabaki politikoek eraginda, 1993an behin betiko itxi zuten Orbegozo. Hori gertatu baino lehen, enplegu-erregulazioko expedienteak,



murrizketak, grebak eta mobilizazioak egon ziren langileen eta Euskadin kalte-tutako sektore guztiaren aldetik.

Krisi-egoera hartin, 1982an Aceriales sozietatea sortu zen, altzairu berezien sektorea «*birmoldatzeko*». Sozietate horretan, protagonismo handia izan zuen Javier García Egotxeagak, Eusko Jaurlaritzako kideak, Felipe Gonzálezen agintaldian Aceriales eta Acenorren lehendakaria izango zenak. Etorkizunak ez zeukan batere itxura onik.



1984an, Euskadin 1.776 pertsona kaleratu zituzten altzairu berezien sektorean; haietatik 380 Orbegozon. Urte hartan, ELAK eta UGTk akordio bat sinatu zuten, Enplegua Sustatzeko Funtsa sortzeko: funts hori baja eskatu nahi ez zutenak lanean kokatzeko jarri zen martxan, 1984an kaleratutakoaren zerrendan zeuden pertsonak birkokatzeko.

Enplegu-erregulazioko hiru espediente egon ziren Orbegozon: 1984an, 1987an eta 1990-91 aldian. Eta, hiru kasuetan, greba eta mobilizazio irmoak eginez erantzun zuten langileek. 1984ko grebak bi hilabete irau zuen.

Hala eta guztiz ere, ez zuten goi-mailetan hartutako erabakiak geldiarazterik lortu. 1993ko abuztuaren amaieran, fabrikak utzi egin zuen bere jarduna, 40 urtez martxan aritu ondoren. Ez zuten eskaera-faltagatik itxi, erabaki politiko batzen ondorioz baizik.

Langile batek gogoan duenez, «guk SKF enpresari saltzen genion altzairua. Oso enpresa ezaguna zen. Erremintak fabrikatzen zituen. Eta, Orbegozo itxi baino bi urte lehenago, Zuzendaritzak kartel batzuk ipini zituen, esanez SKFk kontratu bat lortu zuela hegazkingintzako enpresa batekin. Fabrika-

## Acenorrek langileen mobilizazioak eta Laudioko manifestazioa izango dira gaur

JA / DONOSTIA

Acenorrek Euskal Herrian dituen bost lanterrietako langileek txandako lau orduko greba egingo dituzte gaur. Grabaldiarekin batera izango diren mobilizazioen artean errepide eta trenbide mozketak egingo dituztela espero da, aurreko mobilizazioetan gertatu zen bezala. Protesta ekintza hauetan Sidenorrek altzairu berezien euskal enpresarri ezzuri nahi duen Bi-deragarritasun Plangintzari aurka egitean eta enpresa komentarioen negoziazioan inolako aurrerapausurik ez lortzea dira mobilizazio hauen arrazoiak.

Gasteiz, Laudio, Hernani, Basauri eta Larrondoko lanterrietako langileek asambladak egin zituzten atzo seindikatuak gaurko deitutako mobilizazioak berresteko. Langileek salatu egin zuten Eusko Jaurlaritzako Barne Saila mobilizazio hauetako leuntzeko egingako ahaleginengatik, «lanpostua gaiduko duten langi-

leek protesta egiteko daukaten modu bakarra mobilizatzear» dela adieraziz. Halaber, Laudio eta Hernani itxeta eta ia 1.800 langile kaleratzea aurrikusten dituren estrategi plan-gintzaren aurkako jarrerari eutsiko zioten.

Acenor eta Cantabriko Foarsa biltzen dituen Sidenor holdingeko zuzendaritzia eta sindikatuaren arteko negoziazio mahaiaren hostigarraren bilera izan zen herenegun, inolako emaitzarik gabe bukatu zelarik. Halere, seigarren bilateralik ere izango omen da. Sidenorrek bilerekin jarratzeko asmoa agertu bait zientzela ELA, LAB, UGT eta CCOO sindikatuei.

Sindikatuak eta Sidenorrek zuzendaritzaren arteko desadostasunak direla medio ez dirudi, hala ere, Sidenorren Plana atzerra botako duteenik, batez ere EAE eta Espaniako administrazioen arteko ‘Industria Gailurraren’ ostean. Goi bilera horretan Claudio Aranzadi Madrileko



Aurreko manifestazioa Hernanin.

Industria ministroak uko egin zion Sidenorren planaren ordezkoia izan litekeen Jaurlaritzaren proposame-

nari, «negoziazio sektorialik» ez zela egingo baieztaezan.

**LANGILE ACENORREKO LAN MANIFESTAZIOA LAUDION** izango da gaur Laudioko, Plangintzaren ondorioz itxiko diren Acenorren bi lanterrietako batzukokutik dagoen herriaren hain zuzen. Lehenago Durango, Barakaldo, Errerrieta eta Basauri eskualdeetan egin diren moduan, Aialako herri honetan ere industri krisiaren aurka eta berrindustrializazioa zein lanpostuen iraupenaren alde manifestatuko dira langileak gaur arratsaldeko sei t'erdietan.

Laudioko kaleak zeharkatuko diu manifestazio honetara sindikatu guztiek egiñ dute eta alderdi politikoek ere bultzatuz dute. Zenitzu honetan eta aurreko manifestazioetan gertatu den moduan, euskal sindikatu, alderdi eta euskal erakundetako partaideak bertan izango direla espero da.



*rentzat garrantzitsua zen altzairua hegazkingintzako enpresa bati saltzea. Handik gutxira, ordea, espedienteak eta itxiera etorri ziren»*

## ORBEGOZO IXTEAREN ONDORIOAK

Begirada atzera boteaz, Orbegozok Hernanin izan zuen garrantziari buruzko balorazio globalagoa egin digute langileek. Ederki gogoratzen dute enpresa itxi zutenekoa.

Langile baten iritzian, Orbegozo ixteko erabakia «*politikoa izan zen batik bat. Izan ere, sektoreko baldintzarik onenetakoak zeuzkan enpresak une hartan. Eta, hala ere, itxi egin zuten. Eta, aldiiz, egoera okerragoan zeuden eta iruzur handiagotan zebiltzan beste batzuek zabalik jarraitu zuten. Beraz, erabakia politikoa izan zen. Herria zigortzeko asmoz edo auskalo zergatik hartua»*. «*Jarduera sindikal biziko herria zen Hernani, antifrankista, eta herritarren aldetik partaidetza handikoa»*, dio beste sindikalista batek. «*Ez zegoen fabrika ixteko arrazoi teknikorik, Europa osoko altzairurik onena fabrikatzen baikuenen errodamenduetarako»*

Gehiago ere esaten dute: «*Hain zuzen ere unerik gozoenean, 1.400 langile baino gehiago zeuzkanean. Lan-baldintzak, gainera, herriko onenak ziren, alde handiarekin. Egia da horrek nolabaiteko ezinikusiak ere ernarazten zi-tuela herrian, Orbegozoko jendea aristokraziaren parekoa zelako. Hori garbi ikusi genuen 80ko hamarkadan lehenengo greba egitean kalera irten eta elkartasuna eskatu genuenean. "Elkartasuna orain?", esaten ziguten. "Beste inork baino gehiago irabazten zenutenean ez zineten ba herriarekin gororatu". Hor bai ikusten zela nolabaiteko aldea beste hitzarmen batzuekiko»*

